

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **2019ko ekitaldiko hiri-lurretako, landa-lurretako nahiz ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda jendaurrean jartzea**

Zergen eta Zuzenbide Publikoko bestelako diru-sarrerara Lokalen Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita 2019ko ekitaldiko hiri-lurretako, landa-lurretako nahiz ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3. artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Zerga hori ordaintzeko epea 2019ko apirilaren 1etik ekainaren 3ra artekoa da.

Katastro-balioen kontra aurkezten diren errekurtsu eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229. artikulutik 246.era bitartekoetan xedatutakoak arautuko ditu, eta Arabako Foru Aldundi izango da berraztertze errekurtsoa ebazteko organo eskuduna.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 11n

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**